

2025EKO DEIALDIA, MERKATARITZA- LOKALAK INKUBAZIORAKO ERABILTZEA

1. ARRAZOIEN AZALPENA

Bilbao Ekintza EPEL Bilboko Udalaren erakundea da, eta hiriaren garapen ekonomikoa sustatu eta babesten du, hiritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko asmoz:

- Enpresak sortzea eta haztea errazten du, merkatu berrietarako sarbidea bultzatuz, batez ere hiriak zehaztutako espezializazio adimenduneko eremuetan: zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak, ekonomia digitala eta turismoa.
- Merkataritza-jardueraren garapena sustatzen du, kanpoko proiektu eta ekimenen bultzatzaile izateari uko egin gabe, atzerriko inbertsioari Bilboko ateak irekiz.
- Gazteen garapen profesionala bultzatzen du, haien talentua eta sormena balioetsiz.
- Ekitaldiak eta turistak erakartzen ditu hirira, euskarri eta arretako zerbitzu onenak eskainiz, hiria posizionatzen eta aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeko.

Helburu hau antolatzeko, Merkataritza Arlo bat dauka, saltoki txikien lehiakortasuna hobetzeko lan egiten duena. Horretarako, prestakuntza eta aholkularitzako zerbitzuak eta lehiakortasuna hobetzeko ekintzak eta programak eskaintzen ditu. Gainera, 2025eko Bilboko Merkataritzako Plan Estrategikoan jasota dagoen bezala, hutsik dauden lokalen aktibazio komertziala bultzatzea planteatzen da, erabiltzen ez diren lokalen optimizazioa eta merkataritza-ekintzailatza integratuz.

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza EPELen bidez, honako deialdi hau jarri nahi du martxan, gaika antolatutako merkataritza-inkubaziorako proiektuaren barruan, Bilboko zenbait eremutan saltokien berraktibazioa eta irekiera sustatzeko. Horren bidez, udal-lokalak aldi baterakolagako ditu, bertan merkataritzako eta zerbitzuetako jarduerak egiteko.

Kontsumitzaileen portaera-aldaketek –bereziki, plataforma teknologikoen bidezko erosketen igoerak– eragindako egungo egoerak agerian uzten du gertaera horiek eragin negatiboa izan dutela hurbileko merkataritza-jardueretan.

Merkataritzarik gabeko hiri bat lurralde hotz, pobre eta ez-seguru bihurtzen da; erabilerak nahasten dituen, zerbitzuak eskaintzen dituen, bizi-kalitatea ematen duen eta aberastasuna eta segurtasuna sortzen dituen hiri-espazioaren funtzioa galtzen du; eta periferian instalatutako merkataritza-guneetan oinarritutako eredu baterantz jotzen du, automobilaren nagusitasuna bultzatuz.

Helburu horrekin, aldi baterako inkubazio-espazioak eskainiko dira enpresa-ekimenak abian jartzea ahalbidetzeko; modu horretan, ez dituzte ordaindu beharko alokairutik eta merkataritza-lokalen erabileratik eratorritako gastuak.

Adierazitakoaren arabera, Bilbao Ekintza EPELeko Administrazio Kontseiluak, 2025eko urriaren 29an egindako bilkuran onetsi zuen Bilbao Ekintzak egokitutako inkubazio-espazioak erabili ahal izateko deialdia.

2. ESPARRUA ETA XEDEA

Bilbao Ekintza EPELek programa horren bidez, merkataritza-negozioen sorrera ahalbidetu eta sustatu nahi du hasieratik, Bilboko zenbait auzotan kokatutako inkubaziorako lokal propioen bidez. Hau da, gure lokal propioen espazioak erabiltzeko aukera emango da, bertan ekimen komertzialak eta zerbitzuetakoak abian jarri daitezen, betiere deialdi honetan aurreikusitako baldintzetan.

3. ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Lokalen erabileraren onuradun izango dira nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak, pertsona fisikoak eta ondasun-erkidegoak eta legez eratutako pertsona juridikoak, honako kasu hauetan sartuta badaude:

a) Honakoen titular izatea:

1. Jarduera ekonomiko berria, edo
2. Beste lokal-mota batzuetan garatzen ari den jarduera ekonomikoa.

b) Honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Enpresak sortzeko oinarritzko prestakuntza egin izana eta negozio-plana egiteko beharrezko aholkularitza jaso izana Bilbao Ekintza EPELen Enpresa eta Enplegua Sustatzeko Arloaren edota sektoreko beste erakunde baten bidez, bai eta Bilbao Ekintza EPELeko teknikarien oniritzia jaso izana ere.
2. EJZn alta ematea
3. Mikroenpresa bat izatea:
 - a. Aktiboak edo eragiketa-bolumenak 10 milioi euro baino gehiago ez izatea.
 - b. Plantillaren batez bestekoa hamar enplegatu baino gehiagokoa ez izatea.

- c. Balanatze orokorra 10 milioi euro baino gehiago ez izatea.
4. Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Bilboko Udalak automatikoki egiaztatuko du Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla. Horretarako, datuak bitartekaritzako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsultatuko ditu, dirulaguntza emateko eta ordaintzeko ebazpena ezarri aurretik. Dena den, eskatzailea beren-beregi agertu ahal izango da egiaztapen hori egitearen aurka, eta, horretarako, bere kabuz aurkeztu beharko ditu baldintza hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

5. Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izatea.

Ofizios berrikusiko da ez duela zerga-zorrik, ezta hartutako dirulaguntzak itzultzeagatik ere.

6. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigor- edo administrazio-arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta ez egotea, sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne.
7. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. atalean ezarritako gainerako egoeraren batean sartuta ez egotea, dirulaguntzen onuradun izaera lortze aldera.
8. Berariaz salbuetsita geratzen dira elkarteak, klubak, fundazioak, eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, langile autonomo laguntzaileak, bai eta ondare-sozietateak eta sektore publikoko erakundeak ere.

4. ONURAK

Programa honen barruan honako onura hauek aitortu ahalko dira:

Bilbao Ekintza EPELe lagatako espazio bat sei hilabetez (gehienez zortzi) erabili ahal izatea inolako gasturik gabe zerbitzuak edota produktuak saltzeko, aurretiaz oinarrietan exijitzen diren betekizunak betetzen direla ziurtatu ostean.

Hilabete horiek balioko dute negozioaren egokitasuna probatzeko eta merkatuaren beharrei erantzuten dien ikusteko.

Lokalak erabiltzeko egokituta egongo dira eta lagatako espazioa beste negozio batzuekin partekatuko da.

5. BAIMENAK EMATEKO PROZEDURA

5.1. Eskaerak aurkeztea.

Programan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da Bilboko merkataritza-lokal batean kokatuko den merkataritzari edo zerbitzuei lotutako negozio-ideia bat izatea.

Parte-hartzaileak Bilbon kokatuko diren proiektuak dituzten pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke. Proiektua martxan jartzetik gertu edota jada online abian dauden jardueri zuzenduta dago.

Proposamenak banaka eta nork bere izenean aurkeztuko dira. Prozedura interesdunek aurrez eskatuta hasiko da. Horretarako, eskaera aurkeztu ahal izango dute oinarri hauen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta bi hilabete igaro arte.

Eskaerak telematikoki izapidetu beharko dira, helbide elektroniko honen bidez: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus. Bitarteko horiek erabiltzeko aukerarik egon ezean, eskatzailea Bilbao Ekintza EPELein harremanetan jarri beharko da, izapidetzeko beste modu bat adosteko.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

5.2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Oro har, oinarri hauetan ezarritakoari jarraikiz lokalak erabili eta deskribatutako onurak eskuratu ahal izateko, eskatzaileek eta enpresek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera: okupatutako espazio bakoitzeko eskaera bat egon beharko da; nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, bazkide guztiek sinatu beharko dute. Pertsona juridikoen kasuan, haren ordezkaritza esleituta duenak aurkeztuko du eskaera. (I. eranskina.- Eskaera).
- b) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituenak:
 - i. Ezagutzen eta onartzen dituela deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen duela egiazkoak direla nortasun juridikorik

gabeko ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, pertsona juridikoek eta/edo haien ordezkariak eskaera-formularioetan emandako datuak.

- ii. Mikroenpresa gisa kalifikatzeko beharrezko baldintzak betetzen ditu (gehienez hamar langile).
 - iii. Lokala erabiltzeak ez duela esan nahi udalerriko beste zona batzuetan lehendik zegoen jarduera bat lekuz aldatu denik, edo, hala badagokio, jarduera hori beste lokal-mota batean egiten zenik.
 - iv. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigor-edo administrazio-arloko zehapenik ez duela eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta ez dagoela, sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne.
 - v. Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak, Egoitza Fiskalekoak eta Dirulaguntzak itzultzekoak egunean dituela, eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen duela, Udalak datuak eskuratzearen aurka egiten badu.
 - vi. Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean.
 - vii. Udalak datuak egiaztatzeari baimena ematen diola.
- c) Bilbao Ekintzak proposatutako Negozio Plana edo antzeko eredua. Eskatzaileak negozio-plana beste erakunde batean egin badu, Bilbao Ekintzako Enpresa eta Enplegua Sustatzeko Arloak ere onartu beharko du.
- d) Beste agiri batzuk:
- i. Jarduera Ekonomikoen Zergan (JEZ) egindako alten eta bajen gaineko egiaztageria eguneratua izatea eta gehienez ere sei hilabete antzinasunarekin.
 - ii. Bizkaiko Foru Aldundiaren 200 ereduaren 2. orrialdea (Sozietateen gaineko Zerga) edo mikroenpresa bat dela adierazten duen agiri baliokidea.

Eskatutako dokumentazio guztia oinarri hauetan ezarritako epeetan aurkezten ez bada, edo eskatzaileak 3. kapituluko b) 7 atalean (betekizunak) agertzen diren erakundeekiko zorrak baditu, Bilbao Ekintza EPELe akatsak zuzentzeko eskatuko dio, eta gehienez ere 10 eguneko epea emango dio. Egoera hori erregularizatzen ez bada, eskaera artxibatu ahal izango da, eta

eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Espedientea beste izapiderik gabe artxibatuko da, eta Bilbao Ekintza EPELe ez du eskaera horri buruzko berariazko ebazpenik eman beharrik izango.

Era berean, Bilbao Ekintza EPELe beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du eskatzaileak laguntza-programa honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

5.3. Eskaerak baloratzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbao Ekintzako lantalde teknikoak aurkeztutako eskabide guztiak baloratuko ditu.

Eskabideak norgehiagoka bidez ebaluatu eta ebatziko dira.

Laguntza-eskaera baliozkoa izan dadin, proiektuak gutxienez 60 puntu lortu beharko ditu 85 puntutik, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

- a) Negozio-plana (gehienez 40 puntu). Enpresa-proiektuaren heldutasun- eta analisi-maila baloratuko dira.
 - i. Negozio-plana: 20 puntu.
 - ii. Marketin-plana: 10 puntu.
 - iii. Inbertsio- eta finantzaketa-analisia: 10 puntu.
- b) Negozioaren izaera berritzailea (gehienez 15 puntu).
 - i. Berrikuntza-maila negozio-ereduan: 5 puntu.
 - ii. Teknologia berrien erabilera-maila kudeaketan: 5 puntu.
 - iii. Teknologia berrien erabilera-maila sustapenerako eta komertzializaziorako: 5 puntu.
- c) Jarduketa-eremuko mix komertziala hobetzen eta garatzen laguntzea (15 puntu).
 - a. Inguruan ez dauden jarduerak, aseta ez dauden eskaerei erantzuten dietenak: 5 puntu.
 - b. Inguruan daudenen jarduera osagarriak. 5 puntu.
 - c. Inguruko gainerako jarduerekin alderatuta, jardueran elementu bereizgarriak sartzen dituzten jarduerak: 5 puntu.
- d) Jardueren kasua (gehienez 15 puntu).
 - i. Sortu berria bada: 15 puntu.

- ii. Hasieran merkataritza-lokala ez zena merkataritza-lokala bihurtzen bada irekitzean: 10 puntu.

Berdinketa egotekotan, eskabideak jasotzen diren ordenaren eta espazioa konpartitzeko negozioen bateragarritasunaren arabera ebatziko da. Ondore horietarako, egindako akatsak zuzenduz gero, eskaera lehenengo aldiz egindako data joko da sarrera-datatzat, oinarri hauetan eskatutakoari jarraikiz.

Erabiltzeko egokitutako inkubazio-espazioetako bat libre geratzen bada, horietarako eskabidea aurkeztu baina puntuazio-ordena dela eta hautatu ez ziren proiektuei proposatuko zaie lokal horiek erabiltzea. Horiek baiezkota ematen ez badute, Bilbao Ekintzako Ekintzailerak Unitatean sorrera-fasean dauden proiektuak proposatuko dira.

5.4. Deialdia izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna. Prozedura

Deialdi honetan instrukzio-organo bat dago, eta Bilbao Ekintza EPELen Merkataritza Unitateari atxikitako teknikariek osatzen dute. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, ofizioz egingo dituzte datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko egokitutako jotzen dituzten jarduketak guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena.

Era berean, organo horrek eskumena izango du, egoki jotzen duenean, eskaerak ondo ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen duen dokumentazio edo informazio osagarri guztia eskatzeko.

Eskaerei dagokienez, aurkezpen-egunaren eta -orduaren arabera izapidetuko dira, betiere, zuzentzeko eskatu behar ez den kasuetan. Zuzenketaren bat egin behar bada, eskaera modu egokian osatzeko dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira kontuan eta, edonola ere, deialdi honen xede diren lokalen eskuragarritasunaren arabera izango da esleipena.

Behin eskariak ebaluatuta, organo eskudunari kontzesiorako proposamen-txostena igorriko zaio, berak ebatzi dezan.

Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa, eta, gehienez ere, bi hilabeteko epea izango du ebazpen bat emateko, eskaerak aurkezteko epea guztiz amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Gainera, aurkeztutako dirulaguntzen eskaera guzti-guztien inguruko ebazpen arrazoitu egokia eman beharko du.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, erakunde interesdunek espazioa emateko eskaera administrazioaren isiltasunaren bitartez atzera bota dela ulertu behar izango dute.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen-erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, era berean zenbatuta.

6. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEAK ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA

6.1. Onuradunen betebeharrak

- a) Bilboko Udalak egin beharreko egiaztatze- eta ikuskatze-jarduerak onartzea, eta horretarako eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- b) Betekizunak eta baldintzak betetzen jarraitzea, baita jarduera egiten eta dirulaguntza ematea edo izatea dakarren helburua betetzen jarraitzea ere.
- c) Oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen direla egiaztatzea.
- d) Espazioaren erabileraren emakida onartzea. Ildo horretatik, onuradunari aipatutako espazioaren erabilera eman zaiola jakinarazi eta bost (5) eguneko epean beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badu, lokala onartu duela ulertuko da.
- e) Lokala merkataritza-erabileretarako irekita mantentzea merkataritza-ordutegian eta erabilera-hilabeteetan .
- f) Lokala erabili bitartean garbiketa- eta mantentze-lanak egitea.
- g) Emakidak iraun bitartean erantzukizun zibileko aseguruia indarrean izatea.

6.2. Baldintzak ez betetzea eta laguntzen itzulketa

Espazioaren erabilera-eskubidea izateko arrazoietakoren bat desagertzen bada edo hartzaileek dagozkien betebeharretakoren bat betetzen ez badute, merkataritza-inkubazio programatik

kanpo geratuko dira eta lokala erabiltzeko eskubidea galduko dute. Halaber, Bilbao Ekintza EPEL erakundeak, bere aldetik, lokalaren erabilera-eskubidea eskatu ahalko die.

7. ONURADUNEN INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Ekintza EPELek hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jarduketa-programetan jarduten duten langileak programa horietako onuradunei buruzko edozein informazioaren jakitun suertatzen badira, informazio hori programaren xedeak burutzeko baino ez dute erabiliko. Horrexegatik, hain zuzen ere, programak garatze aldera kanpoko aholkularien lana beharrezkoa denean, Bilbao Ekintza EPELek konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die zereginak direla medio ezagutu dezaketen informazioaren tratamenduari dagokionez.

8. PROGRAMAREN INDARRALDIA

Deialdi hau indarrean sartuko da beronen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

9. INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen batean zerbait garatu, aldatu, egokitu edo kendu behar izanez gero, funtsa aldatu gabe, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, baina Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio neurriak hartu ondoren egiten den hurrengo bileran.

10. LEGERIA APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (BAO, 2016ko uztailaren 20koa).

- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.
- 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretua eta gainerako araudi osagarria.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, (I. titulua).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

**MERKATARITZA-LOKALAK INKUBAZIORAKO ERABILTZEA: OINARRI ARAUTZAILEAK
2025
LAGUNTZA-ESKAERA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

1. Eskatzailearen identifikazio-datuak (eskatzailearen forma juridikoaren arabera betetzeko)

Pertsona fisikoa izanez gero

Eskatzailearen datuak

Izen-abizenak:
NAN:

Nortasun juridikorik gabeko taldea, ondasun-erkidegoa (OE) edo sozietate zibila (SZ) izanez gero

Eskatzailearen datuak

Sozietatearen izena:
Nortasun juridikorik gabeko taldearen, OEren edo SZren IFK:
Ordez kariaren izen-abizenak:
Ordez kariaren NANA:

Nortasun juridikorik gabeko taldeko, OEko edo SZko kideen datuak

1. bazkidea

Izen-abizenak*	
NANA/ IFK	
Dirulaguntzaren %a**	

2. bazkidea

Izen-abizenak*	
NANA/ IFK	
Dirulaguntzaren %a**	

3. bazkidea

Izen-abizenak*	
NANA/ IFK	
Dirulaguntzaren %a**	

* OE edo SZko kideren bat pertsona juridikoa bada, adierazi bere sozietate-izena.

Beharrezkoak direnak errepikatu.

**** OE edo SZn egotzitako errenten ehunekoa.**

Enpresa bat izanez gero

Eskatzailearen datuak

Enpresaren sozietate-izena:
Enpresaren IFK:
Legezko ordezkariaren izen-abizenak:
Legezko ordezkariaren NANA:

2. Erantzukizunpeko adierazpena

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BILBAO EKINTZA EPEL-EN AURREAN

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak,
bere izenean edo enpresaren ordezkarietan (IFK:
.....), zeinak helbide soziala/fiskala helbide honetan duen:
..... (telefono-
zenbakia eta helbide elektronikoa:).

HAU ADIERAZTEN DU:

- Ezagutzen eta onartzen ditu laguntza horien oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen du egiazkoak direla enpresak eskaera-formularioetan emandako datuak.
- Mikroenpresa gisa kalifikatzeko beharrezko baldintzak betetzen ditu (gehienez hamar langile).
- Establezimendua irekitzeak ez duela esan nahi udalerriko beste zona batzuetan lehendik zegoen jarduera bat lekuz aldatu denik, salbu eta jarduera hori beste lokal-mota batean egiten bazen.
- Deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu, eta ez du Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2021 Legegintzako Dekretuaren 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera onuradun izateko debekurik.

- e) Une honetan egunean ditu zerga-ogasunarekiko, Bilboko Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak, eta baimena ematen dio Bilbao Ekintza EPELi azaldutakoa egiaztatze behar diren dokumentuak lor edo kontsultatu ditzan, berariaz aurka egonez gero salbu; kasu horretan, agiriaren amaieran halaxe agerraraziko du.
- f) Deialdi honetako 3. apartatuan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen ditu. Pertsona juridikoen kasuan, beren-beregi adierazten dut mikroenpresa gisa kalifikatua izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela.
- g) Deialdi honen esparruan aurkeztu du eskabidea, eta, gainera, dagokion dokumentazioa aurkeztu du adierazpen honekin batera:
- h) Baimena ematen du prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak helbide elektronikoaren bidez egiteko.

....., 20...(e)koaren ...(a)

Sin.:

****DATUEN BABESA**

Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritza Nagusiak, Bilboko Udalak erakunde honi bitarteko gisa agindutako administrazio-espeditteen kudeaketaren esparruan, datu pertsonal hauek tratatzen ditu ahalmen publikoak gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin bat etorritz. Interesdunak eskubidea du bere datuak ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeke, bai eta tratatzearen aurka agertzeko edo hori mugatzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi beharko du: Nafarroa kalea 5-2. solairua, 48001 Bilbo. Interesdunak, halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea du. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide elektroniko honetara: juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus

UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, interesdunak EZ du Bilbao Ekintza EPEL edo beste administrazio publiko baten esku dagoeneko dagoen dokumentaziorik aurkeztu behar; izan ere, EPELek egoki diren dokumentuak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta behean dagoen laukitxoa markatuz interesdunak AURKAKOA adierazten badu**. Hala bada, interesdunak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.

Ez du baimenik ematen kontsulta hauek egin daitezen (☐ Bizkaiko Foru Aldundia - ☐ Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia - ☐ Bilboko Udala), honako arrazoi hauen ondorioz:

Behean sinatzen dudan nik neuk emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa hartzen dut neure gain.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

Bilbo, 202____ (e)ko _____ (a)ren ____ (a)